

**2015eko APIRILAREN 27an UDALBATZARRAK EGINDAKO APARTEKO  
OSOKO BILKURAREN AKTA** **4 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2015eko apirilaren 27an, arratsaldeko ordu bata eta laurdenetan, Udaltzarrak bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen aparteko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Eider Illarramendi Azkue and. <i>2015eko apirilaren 27ko 0555 dekretuaren bidez Alkatetzak emandako eskuordetzaz baliatuta</i>
<b>Bertaratutako zinegotziak</b>	Jabier Etxaburu Elu jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Mikel Goenaga Gubia jn. Ane Eizmendi Alberdi and. Gari Berasaluze Ostolaza jn. Mariana Aranburu Garate and.
<b>Incorporado</b>	Aser Lertxundi Manterola jn.
<b>Ez dira etorri</b>	Juan Luis Illarramendi Roteta jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Alizia Osa Otxandorena and. Imanol Lasa Zeberio jn. Maite Garrastazu Aranguren and. Maribel Albizu Barrenetxea and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Aierbe jn. Jesus Arana Gomez jn. Patxi Elola Azpeitia jn. Irma Domingorena Zapirain and. Gloria Vazquez Herranz and. M <sup>a</sup> José Lafuente Grasa and.
<b>Idazkaria</b>	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Bilkurari hasiera emanda, idazkariak adierazi du bilkura apartekoa dela eta horren arrazoia dela, hain zuzen ere, Udal eta Batzar Nagusietarako Hauteskundeak direla-eta, mahaietarako kideak izendatzeko presa.

Ondoren, eguneko aztergai bakarra aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrek. Bilkura honela izan da:

## GAI-ZERRENDA

### **Bakarra.- HAUTESKUNDE-MAHAIETARAKO KIDEAK IZENDATZEA**

2015eko maiatzaren 24an Udaletarako eta Batzar Nagusietarako egingo diren Hauteskundeetarako mahaiak osatuko dituzten mahaikideak izendatzeko zozketa hasi aurretik, idazkariak irakurri egin du jarraitu beharreko prozedurari buruz berak prestatutako txostena. Hona hemen transkribatuta:

#### **“IDAZKARITZAREN TXOSTENA**

**Gaia:** 2015eko maiatzaren 24an Udaletarako eta Batzar Nagusietarako egingo diren Hauteskundeetarako hauteskunde-mahaikideak izendatzea.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzkoak, ezarritakoaren arabera, Udalek izendatu behar dituzte 2015eko maiatzaren 24an Udaletarako eta Batzar Nagusietarako egingo diren Hauteskundeetarako hauteskunde-mahaikideak.

#### *Artículo 26*

- 1. La formación de las Mesas compete a los Ayuntamientos, bajo la supervisión de las Juntas Electorales de Zona.*
- 2. El Presidente y los vocales de cada Mesa son designados por sorteo público entre la totalidad de las personas incluidas en la lista de electores de la Mesa correspondiente, que sepan leer y escribir y sean menores de setenta años, si bien a partir de los sesenta y cinco años podrán manifestar su renuncia en el plazo de siete días. El Presidente deberá tener el título de Bachiller o el de Formación Profesional de segundo Grado, o subsidiariamente el de Graduado Escolar o equivalente.*
- 3. Se procede de la misma forma al nombramiento de dos suplentes para cada uno de los miembros de la Mesa.*
- 4. Los sorteos arriba mencionados se realizarán entre los días vigésimo quinto y vigésimo noveno posteriores a la convocatoria.*

Udaletarako eta Batzar Nagusietarako Hauteskundeetan, guztira 28 mahai osatuko dira, barrutiz barruti zein sekzioz sekzio honela banatuta:

Barrutia	Atala	Mahaia	Hautesleak
1	1	A	779
1	1	B	751
1	2	A	503
1	2	B	479
1	3	A	484
1	3	B	494

2	1	A	614
2	1	B	619
2	2	A	722
2	2	B	681
2	3	A	741
2	3	B	822
2	4	A	698
2	4	B	677
2	5	A	600
2	5	B	648
2	6	A	685
2	6	B	721
2	7	1A	525
2	7	1B	470
2	7	2C	336
2	8	A	754
2	8	B	734
2	9	A	733
2	9	B	614
2	10	A	511
2	10	B	522
2	11	U	892

Mahai bakoitzerako mahaiburua, 2 mahaikide eta horietako bakoitzaren 2 ordezeko izendatu beharra dago, hau da, mahai bakoitzeko 9 pertsona. Zarautzen guztira 252 lagun behar dira.

Zozketa ausazko moduan egingo da, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) "CONOCE" programaren bidez.

Gai hau dela medio osoko bilkura gehiago egin behar ez izateko, komeni da Udalbatzarrak horretarako erabakia hartzea: hain zuzen ere, norbait bazterten bada edo kanpoan geratzeko aitzakia onartzen bazaio, kasu horretan, egindako zozketan hurrena dagoen lehenbiziko pertsona izendatuko da, beti ere kargua betetzeko ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu.

Era berean, eta prozedura arintze aldera, komeni da Udalbatzarrak Tokiko Gobernu Batzarri uztea hauteskunde-mahaikideen zozketa egiteko eskumena."

Horiek horrela —adierazi du—, zozketan bertan kargu bakoitzeko bederatzireordezko izendatuko dira hutsunerik gertatzen diren kasuetarako.

Une honetan, **Aser Lertxundi Manterola** jauna bertaratu da bilkurara.

Ondoren, eta ezarritako formaltasun guztiak beteta, datorren maiatzaren 24an hauteskunde-mahaiak osatuko dituzten pertsonak izendatzeko zozketa egin da.

Akta honekin batera dago, eranskin gisa, 28 hauteskunde-mahaietako bakoitzerako izendatutako pertsonen zerrenda.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu andreak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko ordu bata eta hogeita bostean, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.